

## Baliozko proposamena

Azkenaldi honetan, zenbait ikerketa desberdinek ondorioztatu dute bai obesitatearen-tasak bai elikadurarekin lotutako arazo psikologikoen tasak nabarmen egin dutela gora. Covid-19arekin batera, nahaste psikologikoak eta osasun mentala zaintzeak dakarren garrantzia, agerian geratu dira.





Arazo honek, hainbat estatistiken emaitz eta albisteen lerroburu utzi dizkigu, hala nola: "Nerabeen % 70 ez da gustura sentitzen bere gorputzarekin, eta 10 neskatik 6k uste dute zorionsuagoak izango liratekeela argalago izango balira, eta nesken % 30 inguruk jokabide patologikoak erakusten ditu (Iturria: Sociedad Española de Médicos Generales y de Familia, SEMG)" ; "Nerabeen % 11 elikagai-jokabidearen nahastea diagnostikatzeko irizpideak bete ditzaketen arrisku-jokabideak egiten ari da. (Iturria:Fundación ABB)".

Arazo horrek urteak zeramatzan gure artean, baina pandemia egoera dela eta, ehuneko hauek sekulako igoera jasan dute, arazo kezkarria bihurtuz. Marina Díaz Marsák, San Carlos Ospitale Klinikoko TCA unitateko buruak, adierazi duenez, konfinamenduaren ondorioz, gazte askok denbora gehiago eman dute sare sozialetan. Ondorioz, gazte hauek, jende berria edo "influencer" moduan ezagutzen ditugun pertsonak jarraitzen hasi dira, elikaduraren eta ariketa fisikoaren informazioaren bila. Hori guztia elikadura-portaeraren nahasteen hazkunde esponentzian laburbildu da, eta, bereziki biztanleriaren ehuneko handi batek osasunaren interpretazio eta informazio desegokia eskuratzea eragin du.

Hori gutxi balitz, etxeratzeak beste ondorio batzuk ekarri ditu aipatutako arazo guztien tasak nabarmenki handitzeaz gainera. Horien artean aipagarria da suizidio tasaren Madrilgo psikologiaren eskola ofizialaren arabera, pandemiaren ondorioz, gazteen suizidioak %250 egin dute dute gora.

Bestalde, obesitatearen eta gehiegizko pisuaren tasak ere, pandemia egoera delakoan, gora egin dute, datu kezkarria batzuk utziz. Obesitatearen tasak, gizonezkoetan %16,5-ean daude, eta emakumezkoetan, ordea, %15,5-ean. Gehiegizko pisua tasak ere, gora egin dute emakumezkoetan %30,6-ra igoz, eta gizonezkoetan % 45-era.





Arestian aipatu dugun bezala, obesitatea eta sedentarietatea murriztea da egungo gizartearen beste helburuetako bat. Nahiz eta egia den azkenaldian kanpaina asko egin izan direla arazo horiek prebenitzeko, aurretik aipatu dugun sare sozialetan eskuratutako desinformazioak bizimodua aldatu nahi dutenek gaizki edo arrakastarik gabe egitea eragiten du. Horregatik, pertsona horiek etengabe galdetzen diote bere buruei “Nondik hasiko naiz?”. Mirarizko dietak, gure itxura aldatuko dutela hitzematen duten bideoak edo titulaziorik gabe osasun mentalaz hitz egiten duten influencerrak saltzen dizkigute, baina horrek ez du gure ohiturak aldatzea eragingo. Gainera adituek diote, aipatutakoak jarraitzeak osasunak okerrera egiteko probabilitateak potentzialki handitzen dituela.

Gure enpresa, Body & Balance, “nondik hasiko naiz?” galderaren erantzuna da. Psikologoak, nutrizionistak, fisioterapeutak eta entrenatzaile pertsonalak izango dituen zerbitzu integral baten bidez, bezeroak bere osasun ohiturak hobetuko ditu arlo guztietara iritsiz.

Zerk bereizten du gure enpresa antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten beste enpresa batzuetatik? Ezaugarrietako bat aipatu berri dugun zerbitzu integral pertsonalizatua da. Honek, zerbitzu indibidualak edo gure zerbitzu integralaren prezioaren arteko desberdintasuna %35 merkeagoa izatea eragiten du. Horretaz gain, enpresaren parte diren adituek bezeroaren profila aztertuko dute indibidualki eta ondoren guztiek ideiak komunean jarriko dituzte bezeroari berarentzat egokia den zerbitzu bat eskainiz. Gainera, beste enpresa batzuen aldera, Body & Balance-n mugikortasun librea dugu. Hau da, enpresa bezeroarengana iritsiko da mugikortasun arazoak saihesteko. Web orriaren bidez, bezeroak etengabeko harremanetan egon dira adituekin. Beste bereizgarritasun bat enpresak dituen aliantzak dira. Kirolegiekin, gimnasioekin eta beste espezialista batzuekin ditugun aliantzei esker, bezeroa haien bidez iritsi ahal izango da guregana.